



EKONOPOLOren EKONOMIA
SOZIAL ETA SOLIDARIOAren
Auzo Factory zentroaren sarbidea
arautzen duten oinarriak



Harrobia 2020

Aurkibidea

Aurkibidea.....	2
1. Xedea.....	4
2. Kokapena	5
3. Onuradunak eta baldintzak	5
3.1 Sarbidea enpresa-moduluetara	5
3.2 Coworkingeko espazioetako postuetan sartzea	5
4. Sartzeko eskubidea emateko prozedura	6
a. Sartzeko eskaera	6
b. Hautatzeko irizpideak	7
c. Eskaeren balorazioa.....	9
d. Dokumentazioa	9
e. Erantzukizun zibileko aseguruia.....	10
f. Lagapen-hitzarmena.....	11
g. Fidantza	11
5. Kuotak.....	11
6. Ordutegia.....	12
7. Zerbitzuak.....	12
a. Instalazio eta zerbitzuetara sarbidea izatea	12
b. Egonaldiaren iraupena.....	13
c. Obrak	14
8. Datu pertsonalak babesteari buruzko oinarrizko informazioa	15
9. Dispentsa	15
10. Publizitatea	15
11. Programaren iraunaldia eta garapena	16
I. ERANSKINA. Arau komunak.....	17
II. ERANSKINA. Hileko kuotak	20
III. ERANSKINA KUOTA ORDAINDU EZEAN EGINGO DEN JARDUKETA	21

Aurkezpena

Bilbao Ekintza EPEL udal-entitateak (aurrerantzean “Bilbao Ekintza”), Bilbo hiriaren sustapen ekonomikoaz arduratzen denak, udalerrian enplegua eta aberastasuna sortu ditzaketen enpresen erakarpena, sorrera eta hazkundera sustatzeko helburua du, besteak beste. Bilbao Ekintzak uste du ekimen berriek eta enpresa-proiektu berriek nabarmen laguntzen dutela enplegua sortzen, baita kalitate oneko enpresak sortzen ere, batez ere gure udalerrirako interes estrategikoa duten sektoreetan. Bilbao Ekintzak uste du, gainera, zerbitzuetako enpresek ekarpen nabarmena egiten diotela gure udalerrian enplegua sortzeko eta, beraz, enpresa horiek martxan jartzeko eta finkatzeko laguntza ematen du.

Eremu horren inguruan, Bilbao Ekintzak Bilbao Auzo Factory proiektua abiarazi du, hiriko zentroen sarea dena eta herritarren, auzoaren, enpresen eta hiriaren arteko elkargunea izateko helburua duena. Zentro horiek erreferentziazko espazioa izan nahi dute, herritarrentzat eta enpresentzat zabalik dagoena, hiriko garapen ekonomikoaren dinamizatzailerak eta berritzaileak dena, metodologia berriak, espazio berritzaileak eta zerbitzu aurreratuak dituen eta Bilbo hirirako estrategikoak diren sektoreetan arreta jartzen duena.

Xede hori lortzeko Bilboko Udalak, Bilbao Ekintza udal-entitatearen bitartez, Enpresa Sustapeneko Arlo bat du, eta udalerriko ekintzaileentzako laguntza indartzen jarraitzen du BIG Bilbao Ekintzailetza Zentroaren bidez, hain zuzen ere, tokian toki negozio proiektioa duten ekintzaileentzako baliabideen eta ekintzen multzoa biltzeko eta bateratzeko xedearekin sortua. Espazio horren eginkizuna da Bilbo toki erraza egitea negozio berrietarako, ekintzaileentzako zuzeneko eta berriazko toki berezia eratuta. Hala, bere zerbitzurako erreferentzia gune bihurtzen da, non Bilbo hiriaren ahalmen ekonomikoa aurkezten den. Zerbitzuen artean, besteak beste, modu intentsiboan babesten du proiektu berriak abian jartzea eta garatzea. Gainera, aldi baterako espazioak eskaintzen ditu, bai enpresa-moduluetan (espazio itxiak), bai Coworking espazioetan, Bilbao Auzo Factory zentroen sarearen barruan.

Jarduketa-eremuen barruan, Bilbao Ekintzak gure udalerrarentzat estrategikoak diren enpresa-sektoreen proiektu berriak eta ekimen berriak nabarmendu nahi ditu, hala nola ekonomia digitala, zerbitzu aurreratuak, sormen- zein kultura-industriak eta turismoa. Sektore bertikal horiei, halaber, ekonomia soziala eta solidarioa gehitu behar zaie, zeharkako sektore estrategiko gisa. Gai edo jarduera-arlo zehatz batekin zerikusirik ez duen sektore bat, egiteko modu bati lotuta dagoena, ekimen sozio-enpresarialak eta sozio-komunitarioak garatzekoak, zeina errentagarritasun ekonomikotik harago doan; hau da, ekonomia jartzen du pertsonen zerbitzura

eta modu orekatuan indartzen ditu tokiko giza garapenarekin, kohesioarekin eta justizia sozialarekin zerikusia duten faktoreak, ingurua zaintzea edo baliabide ekologikoak erabiltzea.

Horri dagokionez, 2020. urtean Ekonomia Sozial eta Solidarioaren POLOA proiektua abian jartzea da 2019-2023 Agintaldi Planean Bilboko Udalak zehaztu duen lehentasunetako bat. Aurrerantzean, EKONOPOLO esango diogu. EKONOPOLO Bilbao Ekintzaren bitartez garatuko da, ekonomia sozial eta solidarioaren eragileekin. Erreferentziazko espazio izango da, eta ekintzailtza-eredu gisa zein garapen ekonomiko, sozial eta kooperatiborako eskaintzen dituen aukeren berri emango du. Bestalde, erraztu egingo du ekintzailtza sozial kooperatiboa garatzea, eta ideietarako, martxan jartzeko eta enpresei laguntzeko prozesuak babesteko ditu, prestakuntzaren, orientabideen eta helburu horretarako egokitutako planen bitartez.

EKONOPOLO San Frantzisko auzoan egongo da, Harrobiko Auzo Factory zentroan. Zeregin horretarako gaituko da, eta, beste programa eta jarduera batzuen artean, ekonomia sozial eta solidarioari hertsiki lotuta dauden enpresa-ekimenen eta enpresen zentro bat egongo da bertan. Oinarri hauek mintegi horretako sarbidea arautzeko idatzi dira.

Arestian azaldutakoaren arabera, Bilbao Ekintzako Administrazio Kontseiluak, 2020ko ekainaren 19an, eginiko bilkuran, Bilbao Auzo Factory Harrobia zentroan sartzeko araudia onetsi zuen 2020. urterako.

1. Xedea

Oinarri hauen xedea da EKONOPOLOren Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Auzo Factory zentroaren sarbidea arautzea.

Honako oinarri hauetan bildutako neurrien helburua enpresa-proiektuei, enpresei eta profesionalei laguntzea da, zerbitzuen arloko enpresa-jarduera garatzeko Bilbon kokatu nahi dutenei, hain zuzen ere. Edonola ere, ekonomia sozial eta solidarioaren balioekin eta printzipioekin bat eginez eta horiek errespetatuz egingo da lan. Horretarako, udal enpresa-espazio hau jarri da eskuragarri, proiektuak edo negozioak leku egokian garatu ahal izateko. Bertan, ekonomia sozial eta solidarioaren eremuan erreferentzia den inguru bat sortzen joango da (EKONOPOLO) Bilbo, Bizkaia eta EAerako, estatuarekin eta nazioartean konexioekin.

2. Kokapena

Zentroak Bilboko Harrobi plazako 5. zenbakiko 3. eta 4. solairuak izango ditu enpresa-sustapenerako jarduerak egiteko.

3. Onuradunak eta baldintzak

3.1 Sarbidea enpresa-moduluetara

Honako baldintza hauek betetzen dituzten enpresak sartu ahal izango dira enpresa-moduluetan:

- Behar bezala eraturita eta erregistro egokian inskribatuta egon behar dute eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren (IFZ) jabe izan.
- EJZn alta emanda egotea (Ekonomia-jardueren Zerga) Bilbon.
- Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak egunean izatea.
- BIG Bilbaok eskaintzen dituen zerbitzuen bidez eginiko Negozio Plana, Bilbao Ekintzako teknikariek baliozkotua. Beste entitate batean egin izan bada, aurkeztu egin beharko da eta Bilbao Ekintzako teknikariek baliozkotuta egon behar da.
- Antzinasuna hiru (3) urtekoa edo gutxiagokoa izan behar da EJZn alta ematen den egunetik hasita.

Kanpoan geldituko dira herri administrazioetako entitateak eta/edo erakunde eta sozietate publikoak, baita 81. multzoan (finantza-erakundeak) bildutako Ekonomia-jardueren gaineko Zergako epigrafeen eta/edo taldeen barruko jarduera nagusi gisa duten entitateak ere.

3.2 Coworkingeko espazioetako postuetan sartzea

Coworkingeko espazioetako postuetan sartu ahal izango dira honako baldintza hauek betetzen dituzten enpresa-proiektuak eta eraturiko enpresak:

a) Enpresa-proiektuak:

- Negozio Plana BIG Bilbaok udalerriko ekintzaileen eskura jarritako zerbitzuen bidez egin izana. Horrez gain, Bilbao Ekintzako teknikariek baliozkotzat jo behar dute negozio-plan hori.

- Proiektuen ekintzaileek indarrean egon beharko dute Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ordainketekin.
- Etorkizuneko enpresak Bilbon izatea sozietate- eta zerga-helbidea.

b) Eratutako enpresak:

- Enpresa-moduluetarako sarbidearen betekizun berak bete beharko dituzte.

4. Sartzeko eskubidea emateko prozedura

a. Sartzeko eskaera

Eskaeraren inprimakia eta oinarriak interesduna duten eskatzaileen esku egongo dira oinarriak onesten diren unetik aurrera, Bilbao Ekintzaren webgunean: <https://www.bilbao.eus/BilbaoEkintza/es>.

Hori horrela, COVID-19aren eraginak sortutako salbuespen-egoera eta BIG Bilbao eta EKONOPOLOren bulegoetan egindako obrak direla eta, gaur egun ezinezkoa da zentro horietan laguntza pertsonalerako zerbitzua eskaintzea sarbideetarako eskaerak aurkezteko.

Deskribatutako egoera bere onera itzuli eta aurrez aurreko arretari ekiten diogunean, horren berri emango zaio eskatzaileari/sustatzaileari.

Eskaerak oso-osorik eta ondo beteta egon beharko dira, 4.d) apartatuan aipatutako dokumentazioarekin, eta honako helbide honetara bidali: ekonopolo@bilbaoekintza.bilbao.eus.

Interesdunek eskaera aurkezteak oinarri hauen edukia guztiz onartzea ekarriko du.

Eskabideak jaso ondoren, ez badaude erabat beteta edo ez bazaie beharrezko dokumentazio osoa atxiki, interesdunei eskaera egingo zaie, gehienez ere, hamar (10) egun balioduneko epean falta dena konpondu dezaten edo nahitaezko agiriak aurkeztu ditzaten; horrez gain, ohartarazpena egingo zaie, horrela egin ezean eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela, eta beste izapiderik gabe espedientea artxibatu egingo da; Bilbao Ekintzak ez du eskaera horren gaineko berariazko ebazpena eman beharko.

Horrenbestez, eskaera balorazioa egiteko aurkeztutzat joko da eskaera betetzen denean edo, kasuan kasu, zuzenketa egokiak aurkezten direnean.

Edonola ere, Bilbao Ekintzak eskatzaileei eskatu ahal izango die aurkeztutako eskaera ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio edo informazio guztia, eta, gainera, elkarrizketa bat egiteko deialdia egin ahal die proiektua hobeto ulertze aldera.

Bilbao Ekintzako teknikariek aztertuko dituzte eskaerak, eta hautaketa-irizpideen arabera balorazioa egingo da. Adituen aholkularitza eskatu ahal izango da aurkeztutako proiektuak hala eskatzen duenean.

Hitzartutakoa ez beste espazio batean birkokatze eskatzen duen edo lanpostuen kopuruan aldaketaren bat egin nahi duten lagapen-hartzaileak idatzizko eskaera aurkeztu beharko du. Bilbao Ekintzak erabakiko du eskaturiko birkokapenerako baimena ematea edo ez ebatzen bidez. Aldeek sinatutako hitzarmenari erantsiko zaizkio bi dokumentu horiek. Eskatutako birkokapena baimentzen den unean indarrean dauden oinarrietan ezarritakoaren arabera aplikatuko da kuota.

b. Hautatzeko irizpideak

Coworking espazioetako lanpostuetarako eta enpresa-moduluetarako sarbidea emateko, honako balorazio-irizpide hauek izango ditu kontuan Bilbao Ekintzak, hiru multzotan sailkatuta:

BALORAZIO-TAULA	
Irizpidea	Deskribapena
<p>1. Jarduerari eta lantaldeari buruz</p> <p>Gehienez ere, 45 puntu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Aurkeztutako proiektuaren edo negozio-planaren garapen-eta egokitasun-maila. • Produktu eta zerbitzu berritzaileak eta bereziak, merkatuan dagoeneko existitzen diren beste aukera batzuekin alderatuta. • Produktuen eta zerbitzuen xede den merkatuaren potentziala. • Proiektuek jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzeko duten hazkunde-potentziala. Sendotasuna, eskarmentua eta lantalde sustatzailearen gaitasuna.
<p>2. Ekonomia sozialarekin duen lotura</p> <p>Gehienez ere, 30 puntu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Jarduerak gizartearen erronkak eta premiak jorratzen ditu, edo, bereziki, zaugarritasun-egoeran dauden kolektiboan. Baloratu egingo da NBEren garapen jasagarriko 17 helburuetatik baten bat betetzea (https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/), eta ekonomia sozial eta solidarioaren esparruko lehentasunezko sektoreetara bideratzea (elikadura-, energia- edo teknologia-subiranotasuna, zaintzak, finantza etikoak, mugikortasun, jasagarritasuna, komunitateko zerbitzuak, kultura-garapena...). • Ekonomia sozialaren printzipioetara egokitzea (https://eges.eus/es-economia-social#economia-social-principios) eta Bilboko Balioen Gutuneko 17 balioetatik baten bat garatzen laguntzea (http://balioenhiria.bilbao.eus/carta-de-valores-de-bilbao/). • Ekonomia sozialaren barruan dauden forma juridikoetako bat izatea (https://www.cepes.es/social/econ_social_que_es).
<p>3. Harremani lotutako alderdiak (beste eragile batzuekin eta inguruarekin)</p> <p>Gehienez ere, 25 puntu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • EKONOPOLoren garapen eta funtzionamendu kolektiboan aktiboki laguntzeko gaitasuna eta gogoia, bai eta dagoeneko ezarrita dauden beste eragile eta proiektuekin lankidetzak egiteko nahia ere. • Berdintasunarekin eta jasagarritasunarekin zerikusia duten neurri zehatzak edukitzea erakundearen barruan eta jarduera garatzeko. • Ekonomia sozialaren edo ekonomia sozial eta solidarioaren elkarte edo sare bateko kide izatea.

c. Eskaeren balorazioa

Bilbao Ekintzako teknikariek izapidetuko dituzte eskaerak, dena den, Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiak emango du zentrora sartzeko baimena.

Moduluetara eta *coworking* espaziora sartu ahal izateko, eskatzaileek 65 puntu baino gehiago lortu behar dituzte balorazio orokorrean (guztira, 100 dira), eta, gainera, ekonomia sozial eta solidarioren garapenarekin zerikusia duen esparru batean gehituko direla kontuan izanda, gutxienez, 35 puntu lortu beharko dituzte irizpideen 2. eta 3. multzoen balorazioaren batuketan.

Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiaren eskaeren ebazpenak beren-beregi eta banaka jakinaraziko zaizkio eskaera aurkeztu duen pertsonari.

Eskaerak sarrera-hurrenkeraren arabera ebatziko dira eta zentroan dauden lekuak kontuan hartuta.

d. Dokumentazioa

Sartzeko eskaera ororekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa:

1. Sartzeko eskaeraren inprimakia.
2. Bankuko datuak. "Bankuko datuen fitxa" inprimakiaren bitartez emango dira.
3. Bazkideen nortasun agiri nazionalaren kopia.
4. Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak emandako jatorrizko ziurtagiria, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorreko edo Langile Autonomoen Araubide Bereziko kuotak behar bezala ordainduta daudela egiaztatzen duena.
5. Ogasunaren ordainketarekin indarrean dagoela dioen jatorrizko ziurtagiria, Ogasunak igorrita.
6. EJZren alta dokumentuaren kopia.
7. Oinarrietako aurreko b) atalean ezarritako balioztatze-irizpideak dakartzan negozio:
 - a. Bilbao Ekintzaren laguntzarekin eratutako enpresak: Bilbao Ekintzako teknikarien oniritzia eduki beharko dute.

- b. Bilbao Ekintzaren laguntzarik gabe eratu diren enpresak: Egin den erakundearen oniritzia duen negozio-plana, Bilbao Ekintzako teknikariak egina eta baliozkotuta.
 - c. Enpresa-proiektuak: Anaitutako negozio-plana, BIG Bilbaoren zerbitzuen laguntzarekin egina.
8. Dagoeneko eratuta enpresen edo ondasun erkidegoen kasuan:
- a. Eskaera egilearen ordezkari-tza-ahalmena frogatzen duen agiriaren fotokopia.
 - b. Eskrituren (Merkataritza Erregistroaren eginbidearekin) edo eraketaren akordioaren kopia.
 - c. Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia(IFZ).
9. Enpresa-proiektuen kasuan:
- a. Etorkizunean, EIZn alta ematen denetik aurrera, Bilboko udalerrian kokatzeko konpromisoa.

e. Erantzukizun zibileko aseguruia

Espazioa okupatu aurretik, Erantzukizun Zibileko Aseguruia kontratatu beharko dute lagapen-hartzaileek, jardueran aritzeak, instalatutako mekanismoen funtzionamenduak eta abarrek okupatutako espazioari, instalazio eta elementu komunei, hirugarrenei eta beste onuradun batzuei sor diezazkieketen kalte pertsonal eta materialak estaltzeko, baita material eta ekipamendu propioak estaltzeko ere.

Alde lagapen-hartzailea bere ekintzen erantzule izateaz gain, Bilbao Ekintzak lagatako espazioan lagapen-hartzailearen erantzukizunpean dauden pertsonen ekintzen eta kalteen erantzule izango da, bai ondorioz kontratua bertan behera uzten denean, bai kalte eta galerengatik kalte-galerak ordaindu behar direnean.

Polizan honako datu hauek agertuko dira: EKONOPOLOren Auzo Factory zentroaren helbidea, okupatuko den espazioaren zenbakia, metro karratuak, solairua, hartzaileak eta estaldura.

Kontratututako aseguru-polizaren kopia bat aurkeztu beharko dute, ordainketa egin izanaren agiriarekin batera, gehienez ere hilabeteko epean, betiere lagapenaren indarraldia hasi aurretik.

Aseguru-polizak indarrean egon beharko du lagapen-hitzarmenaren indarraldi osoan.

f. Lagapen-hitzarmena

Espazioa okupatu aurretik eta Bilbao Ekintzari nahitaezko dokumentazioa entregatu ondoren (Erantzukizun Zibileko Aseguruaren poliza barne), Bilbao Ekintzak hitzarmen bat sinatuko du lagapen-hartzaile bakoitzarekin, eta bertan jasoko dira espazio hori erabiltzeko lagapenaren baldintza arautzaile orokorrak zein zehatzak.

Lagapen-hitzarmena indarrean jartzen denean, Bilbao Ekintzak moduluetan sartzeko giltzak entregatuko ditu. Galduz gero giltza gehiago behar izanez gero, lagapen-hartzailea arduratuko da kopia horiek egitearen kostuz. Behin kontratua deseginda, lagapen-hartzaileak dauzkan giltza guztiak itzuli beharko ditu.

g. Fidantza

Lagapen-hartzaileak Bilbao Ekintzaren aldeko fidantza bat jarri beharko du ondoren aipatuko diren zenbatekoetan:

- Coworking guneko lanpostua:	50 euro
- Enpresa-moduluak:	140 euro

Lagapenaren aldia bukatutakoan itzuliko zaio fidantza lagapen-hartzaileari, baldin eta espazioa eman zitaion egoera berdinean itzultzen badu.

5. Kuotak

Lagapen-hartzaile bakoitzak hilean ordaindu behar duen kuotaren zenbatekoa Bilbao Ekintzako Administrazio Kontseiluak urtero erabakitzen duen prezioari lotuta dago.

Dokumentu honen II. eranskinean zehaztu dira 2020. urteari dagozkion kuotak, bai banakako gutxieneko zerbitzuak, bai zerbitzu orokorrak barnean hartzen dituztenak.

Kuotak urtero eguneratuko dira, eta Bilbao Ekintzako Administrazio Kontseiluak onartuko dituen oinarrien eranskinean argitaratuko dira.

Kuota ordaindu ezean, oinarri hauen III. eranskinean zehaztutako prozedura aplikatuko da.

6. Ordutegia

EKONOPOLO egun osoan irekita dago (24 orduz) lagapen-hartzaileentzat eta lagatako espazioetan lan egiten dutenentzat.

7. Zerbitzuak

a. Instalazio eta zerbitzuetara sarbidea izatea

- Lan egiteko toki bat, lagapen-erregimenean, baita eraikineko guztientzako eremuak erabiltzeko aukera: bilera-aretoak, erabilera anitzeko gelak, sukaldea, office eta abar.
- Izaera orokorreko gutxieneko zerbitzuak:
 - Garbiketa eta mantentze-lanak.
 - Berokuntza.
 - 4. solairuko aire egokitua.
 - Ura eta argindarra.
 - EKONOPOLO Interneteko sarerako konexioa erabiltzea nahitaez; galarazita dago nork bere operadorea kontratatzea.
- Banakako gutxieneko zerbitzuak (enpresa-espazioetako altzariak): Horrelakoak izango dira lagapen-hartzaile bakoitzak banaka erabil ditzakeen zerbitzuak, oinarrizko altzarien hornidura barne:
 - Enpresa Moduluak: mahaia, aulkia, konfiantzazko lagunaren aulkia, armairua eta tiradera-altzaria.
 - Coworking guneko postua: mahaia eta aulkia lanpostuko, armairua eta tiradera-armairua.

Ezin izango da sartu eraikinean EKONOPOLO espazioa hartzen duen elementurik hala nola altzariak edo beste ekipamendu batzuk Lagapen-hartzaileak, arrazoi objektiboak tarteko hala egitea justifikatuta dagoenean, beren lanpostuetan sartu ahal izango ditu, baina aurretik Bilbao Ekintzaren berariazko baimena beharko du

- Tutoretza-zerbitzuak:

Proiektuaren tutorizazio zerbitzua eskuratzea, Bilbao Ekintzak erabiltzaileen eskura jarritakoa. Enpresak sortzeko eta lehiakortasuna hobetzeko laguntza zerbitzuak eta programak eskuratu ahal izango dira.

- Beste zerbitzu batzuk:

Edozein lagapen-hartzailek eskatu ahal izango dio Bilbao Ekintzari zerbitzu berriak emateko eta egokitzapenak egiteko. Bilbao Ekintzak, azterlana egindakoan, zerbitzua edo egokitzapen baimenak eman ala ez erabakiko du, baita horiek ezartzeak eta mantentzeak zerbitzuok erabiltzen dituen lagapen-hartzaileari ekarriko dion kostua ere.

- Enpresek euren helbide soziala EKONOPOLON kokatu ahal izango dute.

b. Egonaldiaren iraupena

Lagapen-hitzarmena, hasieran, gutxienez urte baterako (1) sinatuko da, eta urtez urte luzatuko da automatikoki, baimendutako gehienezko epealdia bete arte:

- Dagoeneko eratuta dauden enpresen kasuan: gehienez, hiru (3) urtez luzatu ahal izango da.
- Enpresa-proiektuen kasuan: gehieneko iraupena sei (6) hilekoa izango da. Proiektuari ekonomia-jardueren gaineko zergan alta ematen bazaio, egonaldia beste bi urte (2) eta erdiz luzatu ahal izango da, baimendutako gehieneko epealdia (3 urte) bete arte.

Kasu bietan, egonaldi-epea lagapen-hitzarmena sinatzen denetik aurrera hasiko da zenbatzen.

Salbuespen gisa, lagapen-hartzaileak idatziz eskatu, Bilbao Ekintzako teknikarien balorazioa lortu eta Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiak onetsi eta gero, egonaldiaren iraupenari buruzko baldintzak aldatu ahal izango dira, zentroan kokatutako proiektuen garapenaren arabera.

Lagapen-hartzaileak hitzarmena bukatu baino lehen deuseztatu ahal izango du, baldin eta Bilbao Ekintzari idatzizko eskabide formalaren bidez jakinarazten badio, gutxienez hilabete bat (1) baino lehenago.

Bilbao Ekintzak kudeatzen dituen Auzo Factory zentroetako batean egoteko gehieneko aldia bete izana onuradun berberak beste zentro baterako aurkez ditzaketan eskaerak ukatzeko arrazoa izango da, hala badagokio.

Hitzarmenaren indarraldian sor daitezkeen lanpostuen kopurua aldatu nahi izanez gero, lagapen-hartzaileak idatziz eskatu beharko du, dagokion inprimakia betez. Eskaerak Bilbao Ekintzak berariazko jakinarazpen bidez ebatziko dira. Bai eskaera hau, bai egindako jakinarazpena, Hitzarmenari erantsiko zaizkio.

Eskatutako aldaketa onartuta, aplikatu beharreko kuota eskaera onartzen den unean indarrean dauden oinarriek dagokiena izango da.

c. Obrak

EKONOPOLOren espazioa osorik zaharberritu beharko da; hortaz, hainbat urtetan egingo diren faseetako zaharberritze- eta berritze-proiektu bat egingo da. Obra-prozesu hori ezinbestekoa da EKONOPOLOren etorkizuneko espazioa erreferentziazko leku eroso eta jasangarri bat izateko.

Egokitzapen hori aldi berean egingo da, espazioan inkubatutako proiektu eta enprekin batera, eta obren eta proiektuen jardueraren eragina ahalik eta gehien murrizten saiatuko da.

Nolanahi ere, lagatako espazioa erabiltzen jarraitzea ezinezkoa bada, Bilbao Ekintzak onuradunari beste espazio batean birkokatzeko aukera emango dio, birkokatzea posible den guztietan. Horretarako, espazio berriaren berezko ezaugarri tekniko, ekonomiko eta antolakuntzakoetara egokituko da, dagokion hileko kuotarekin, eta aldean artean sinatutako jatorrizko hitzarmena zenbatuko da egonaldiaren iraupenerako.

Aipatutako birgaitze-obrak direla eta, zentroan kokatutako onuradunetako bat birkokatu behar bada, onuradunak alderdien artean sinatutako hitzarmena indargabetu ahal izango du, alde aurretik emandako espazioan jarraitzea ezinezkoa den unetik aurrera.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, lagatako espazioa birkokatzerik ez badago, Bilbao Ekintzak aldean artean sinatutako hitzarmena deuseztatzeko aukera izango du, behar hori gertatzen den hilabetea amaitzean. Onuradunak espazioa utzi beharko du, oinarri arautzaile hauetan jasotako baldintzetan.

8. Datu pertsonalak babesteari buruzko oinarritzko informazioa

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat etorriz, Bilbao Ekintza EPELk parte-hartzaileen datu pertsonalak tratatuko ditu.

“EKINTZAILEAK” tratamenduaren helburua kultura ekintzailea sustatzea xede duen zerbitzua garatzea da, baita enpresa ekimen berriei laguntzea eta enpresa berri horiei kalitate zigilu bereizgarri bat ematea ere, interesdunaren baimenarekin. Adierazitako zerbitzuekin zerikusia dutenei helaraz dakizkieke datu pertsonalak. Interesdunek datuak ikusteko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea dute, bai eta tratamendua mugatzeko edo aurka agertzeko eskubidea ere. Datuak babesteari buruzko informazio gehiago Bilbao Ekintza EPELren webgunean eta/edo helbide elektroniko honetan eskura daiteke: juridico@bilbaoekintza.bilbao.eus

9. Dispentsa

Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiak, teknikarien txostena jaso ondoren eta haien proposamenez, salbuespen gisa, arrazoiak emanez eta inguruabar partikularrak kontuan hartuta, oinarri hauetan ezarritako gutxieneko eskakizun, muga eta baldintza batetik edo batzuetatik salbuetsi ahal izango du eskatzailea.

Dispentsak ematea behar bezala arrazoituta egongo da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35.i) artikuluan xedatutakoa betez.

Dispentsa-eskaera idatziz egin beharko da, eskatutako dispentsa justifikatzen duten dokumentuekin batera.

10. Publizitatea

Lagapen-hartzaileak Bilbao Ekintzaren edo EKONOPOLOren logoa edozein bitartekoren bidez — idatzizko, ikus-entzunezko edo elektronikoa— egiten dituen jarduera partikularren publizitatea

egiteko erabili behar badu, aldez aurretik, Bilbao Ekintzaren onarpen formala eta idatzia beharko du..

Lagapen-hartzaileek ezin dute eraikinean publizitaterik jarri, esanbidez, enpresaren jarduerarekin zerikusirik ez badu; horretarako, gainera, aldez aurretik, dagokion onarpen idatzia eskatuko diote Bilbao Ekintzari.

11. Programaren iraunaldia eta garapena

Programa honen oinarriak onartzen diren egunetik aurrera aurkeztutako eskaerei aplikatuko zaizkie, 2020. urte osoan zehar. Epe hori luzatu egin ahal izango da, Bilbao Ekintzaren Administrazio Kontseiluak hala erabakita.

Hala ere, oinarri hauen indarraldia bukatu eta gero ere erabili ahal izango dira oinarriok, Bilbao Ekintzako Administrazio Kontseiluak hurrengo ekitaldirako oinarriak onartu bitartean, baldin eta Bilbao Ekintzak hemen araututako zerbitzuen prestazioa etetea erabakitzen ez badu.

Oinarriak indarrean dauden bitartean, bertan kontuan hartzen diren alderdietako baten bat garatu behar bada edo programa funtsean aldatzen ez duen egokitzapenen bat egin behar bada, Administrazio Kontseiluak eskumena ematen dio Bilbao Ekintza EPELren Zuzendaritzari aldaketa horiek egiteko. Zuzendaritzak aldaketak egin ondorengo lehen bileran emango dio Kontseiluari aldaketen berri.

I. ERANSKINA. Arau komunak

1. Egonaldi-erregimena

- a) Espazio horiek erabiltzeko, oinarri hauen 4.f puntuan ezarritako baldintzak bete beharko dira.
- b) Lagatako espazioa erabiltzeko eskubidea pertsonala eta besterenezina da, eta ezin izango da errentan eman edo laga, ez osorik ezta zati bat ere, ez doan eta ez behin-behinekoz ere.
- c) Jarduera hasteko eta garatzeko beharrezko administrazio baimenak eta lizentziak izan beharko dituzte, horri dagokionez indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz.
- d) Proiektu edo enpresa batek okupatzen dituen lanpostuen kopurua inola ere ezin izango da hamarretik (10) gorakoa izan.
- e) Lagapena jakinarazten den datatik gehienez ere bi (2) hilabete igaro baino lehen eman beharko diote hasiera jarduerari lagatako espazioan.
- f) Espazioa erabilera eraginkorreko egoeran mantendu behar dute. Salbuespen gisa eta proposamen arrazoituaren bitartez, Bilbao Ekintzak erabilera aldi baterako etetea baimendu ahal izango du. Espazioa behin betiko erabiltzez uzten badu, entregatu zen baldintza berdinetara lehengoratu beharko du.
- g) Eskainitako Internet zerbitzuarekin zerikusia duten gai guztietan, instalazioa egin ondoren, edozein gorabehera edo eskaeraren berri emateko, zerbitzua ematen duen kanpoko enpresara jo beharko da. Bilbao Ekintza arduratuko da harremanetarako datuak emateaz.
- h) Kasuan kasuko espazioan egonaldia bukatu ondoren, onuradunak bere gauza guztiak kendu beharko ditu bertatik. Bestela, Bilbao Ekintzak gauza horiek kendu ahalko ditu, eta, egonaldia bukatzen den unetik hiru (3) hilabete igaro ondoren, suntsitu ahal izango ditu.
- i) Lagapen-hartzaileek elementu komunak erabiltzeko eskubidea dute, baldin eta gainerakoei erabiltzea oztopatzen ez badiete, eta Bilbao Ekintzak ezarritako arauak betetzen badituzte. Izan ere, azken horrek ebatziko ditu gaiaren inguruan sor daitezkeen gatazkak.
- j) Ez da onartuko zentroan animaliak sartzea.

2. Proiektuak garatzeko baldintzak

Diruz lagundutako proiektuen garapenak ezin izango ditu urratu hirugarrenei legezko edozein tresnaren bitartez aitortutako eskubideak, nazioartekoak zein estatukoak, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala barne.

Halaber, 1083/2006 Araudiko (EE), I. tituluko IV. kapituluko 16. eta 17. artikuluetan jasotako oharren arabera, Bilbao Ekintzak enpresei eta enpresak sortzeko proiektuei laguntzeko dituen tresnen bitartez, erakunde onuradunek gauzatzen duten merkataritza-praktikak errespetatu egin beharko ditu araudi horretan jasotako irizpideak; horrenbestez, ingurumena babestu eta hobetzeko sustapenarekin eta garapen iraunkorrarekin zerikusia duten jardunbide egokien inguruan sentsibilizatzea bilatuko du, bai eta enpresen barruan lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari lotutako jardueri dagokienez ere. Halaber, sexuan, arrazan edo jatorri etnikoan, erlijioan zein sinesteetan, desgaitasunean, adinean edo sexu orientazioan oinarritutako diskriminazioaren aurka eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egingo da.

Bukatzeko, Euskal Autonomia Elkarteke herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuarekin bat eginez, onuradunek proiektua eratzean eta garatzean lehentasunez euskara eta gaztelania erabiliko dituzte, albo batera utzi gabe beste hizkuntza batzuk erabiltzea, proiektuak hala eskatzen duenean.

3. Betebehar orokorrak

- a) Eskatutako informazioa ematea, programa honen helburuari dagokionez bere funtzioak egiteko.
- b) Bilbao Ekintzarekin hitzartutako baldintzetan edozein aldaketa suertatuz gero, horren berri dagokion garaian ematea.
- c) Enpresa-moduluetan lanean dauden pertsonen kopurua aldatu nahi izanez gero, Bilbao Ekintzari idatziz jakinarazi beharko zaio, gutxienez hilabete bat (1) baino lehenago.
- d) Instalazioak eta elementu komunak, baita banako gutxieneko zerbitzuak ere, ondo erabiltzea.
- e) Lagatako espazioen segurtasuna lagapen-hartzaile bakoitzaren erantzukizuna izango da.

- f) Eta, oro har, oinarri hauetan adierazten diren guztiak, baita lagapen-hitzarmenean aipatzen diren betebeharrak ere.

4. Arrisku orokorren prebentzioa

Bilbao Ekintzak ezarritako Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko araudi orokorra errespetatu beharko dute lagapen-hartzaileek eraikin osoarekin zerikusia duenari dagokionez, betiere lanpostu propioei, baita lanpostu horiek betetzen dituzten langileen osasun baldintzei ere, lotutako prebentzio-araudia zuzenean betetzea galarazi gabe.

Horrez gain, lagapen-hartzaileek Bilboko udal entitateen prebentzio zerbitzu mankomunatuak egindako gomendioak betetzeko konpromisoa ere hartzen dute, dagokien eskumenean barruan eta betiere programa betearaztean garatzen den jarduerak ondorio horietarako eragina duela ulertzen bada.

5. Tabakismori aurre egiteko osasun-neurriak

Tabakismoari aurre egiteko osasun-neurrien eta tabako-produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzen dituen Legea (28/2005 Legea, abenduaren 26koa) eta Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea betez, ezingo da erre zentroko instalazioetan, ez oinarri hauen lagapenaren xede diren lan-espazioetan, ez eremu komunetan, aire zabalean izan ezik, halakorik egonez gero.

6. Betebeharrak ez betetzea eta ondorioak

Ezarritakoa ez betetzea eta ondorioz lagapen-hartzaile bakoitzarekin sinatutako hitzarmena desegitea Bilbao Ekintzako Zuzendaritzaren ebazpenez deklaratuko dira; ebazpena behar bezala jakinaraziko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan jasotako moduan. Ebazpen horren aurretik, EKONOPOLO zentroaren kudeaketaz arduratzen diren teknikariek gaiari buruzko txostena egingo dute.

Lagapen-hartzaileek ordainketa betebeharrak ez betetzearen ondorioz hitzarmena desegitea deklaratzeko, nahikoa izango da dagokion kuota epe barruan ordaindu gabe lehen aldiz utzi duenean lagapen-hartzaileari hori jakinaraztea.

II. ERANSKINA. Hileko kuotak

2020. urtean zehar, hilean ordaindu beharreko kuotak (BEZa kanpo) honako hauek izango dira, langileen kopurua aintzat hartuta:

Coworking guneetako lanpostuak (3. eta 4. solairua):

Enpresa-proiektuak	Lanpostua (pertsonek 1)	20,00 €
Enpresak	Lanpostua (pertsonek 1)	40,00 €

Enpresa-moduluak (3. eta 4. solairua)

MODULUA	M2	EURO MODULU HILABETEKO
3. SOLAIRUA		
1	19	120
2	10	100
3	31	160
4	49	240
5	28	140
4. SOLAIRUA		
1	14	120
2	10	100
3	10	100
4	10	100
6	19	120
8	19	120
9	30	140
10	21	140
11	11	120

Enpresa-modulua aldatuz gero ordaindu beharreko kuota 115,00 €

III. ERANSKINA KUOTA ORDAINDU EZEAN EGINGO DEN JARDUKETA

1. Arau-esparrua

Lagapen-hartzaileen betebeharrak ez betetzearen ondorioak moduluen lagapenari aplikatzen zaizkion urteko oinarrietan jasota daude, baita horretarako sinatzen diren hitzarmenetan ere, eta horien artean, hitzarmena desegitea dago.

Betebeharrak ez betetzea eta horren ondorioz hitzarmena desegitea Bilbao Ekintza EPELko Zuzendaritzaren ebazpenaren bidez deklaratuko dira. Aldez aurretik, dagokion teknikariak gaiari buruzko txostena bidaliko du.

2. Jarduteko prozedura

Ordaintzen ez bada, prozedura hau abiaraziko du Bilbao Ekintzak:

Bilbao Ekintzako Kontabilitate Sailak fakturatzeko den hilabete berean bidaltzen ditu EKONOPOLON lagatako espazioa erabiltzeagatik ordaindu beharreko hileko kuotei dagozkien ordainagiriak.

Ondoren, Kontabilitate Sailak berak itzultako ordainagiriak detektatuko ditu, eta akatsik egon ez dela egiaztatu ondoren, zentroa kudeatzeko izendatutako pertsona lagapen-hartzailearekin harremanetan jarriko da, gorabeheraren arrazoia ezagutzeko eta ordaindu ez den ordainketa erreklamatzeko.

Bilbao Ekintzak kasuan-kasuko inguruabarrak aztertu ahal izango ditu (enpresa/proiektuaren ibilbidea, oraingo egoera, aukerak...) eta baloratuko du ordainketa berehala egiteko eskatu behar den ala, aitzitik, komeni den geroratzea edo ordainketa-baldintza jakin batzuk ezartzea; azken horiek Bilbao Ekintzak idatziz jakinaraziko dizkio erabiltzaileari.

Izapide horren ostean kuotak ordaintzen ez badira, jarduketak Aholkularitza Juridikora bideratuko dira, bidezkoztat jotzen dituen jardunbideak abian jar ditzan.